

UDAL-BATZARRA 6/06

UDAL-BATZARRAK, 2006ko URRIAREN 25ean EGINDAKO EZOHIKO BILKURARI DAGOKION AKTA

PARTAIDEAK:

ALKATEA:

Fidel Azpiroz Arrillaga

ZINEGOTZIAK:

Jose Ignacio Otermin Garmendia

M^o Carmen Egurza Salaberria

Mikel Zubillaga Galarraga

Jesús M^a Arsuaga Lizaso

Nieves Alarcos Martinez

IDAZKARIA:

Nekane Agirresarobe Etxeberria

ANOETako Udaletxean, 2006ko urriaren 25ean iluntzeko zortziak eta laurdenak direnean eta aurrez dei egin ondoren, Udal-Batzarra elkartu da, Ezohiko Bilkura egin asmoz Fidel Azpiroz Arrillaga alkate jaunaren mahaiburutzapean eta alboan aipatzen diren Zinegotzi guztiek parte hartzen dutelarik eta Kepa De la Iglesia Sanchez eta Silvia Dos Santos Leite Zinegotziak ez dira etorri eta ez dute arrazoirik adierazi; idazkaria, Nekane Agirresarobe Etxeberria andrea.

Bilera hasi aurretik, alkateak pleno eta bideo gelan multimedia sistema jartzeko egin diren obren berri ematen du. Lan hauek udalaren zerbitzuak erraztu eta hobetzeko direla aipatuz.

Ondoren bilkurarekin hasten dira.

Previo al inicio de la sesión, el Sr. Alcalde da cuenta de las obras realizadas en el Salón de Plenos referente al equipameinto del mismo con multimedia así como la Sala de Video. Señala que sirva para facilitar la labor y buena marcha de los servicios que presta el Ayuntamiento.

A continuación se procede con el inicio de la sesión.

1.- 2006KO UZTAILAREN 17AN OSPATURIKO AKTAREN ONESPENA

Udalbatzak 2006ko uztailaren 17an egindako bilkuraren akta irakurri eta aho batez onetsirik geratu da.

Es leida y aprobada por unanimidad de los reunidos el acta de la sesión celebrada con fecha 17 de julio de 2006.

2.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA, 246TIK URRIAK 20A ARTE EGINIKOAK, BIAK BARNE.

Fidel Azpiroz Arrillaga Alkate Jaunak egindako ebazpenen berri eman du, alegia, 246tik 360era, biak barne; korporakideek jakituen geratzen direlarik.

El Sr. Alcalde D. Fidel Azpiroz Arrillaga da cuenta de las resoluciones dictadas correspondiente a los números comprendidos entre el 246 al 360, inclusive; dándose la Corporación por enterada.

3.- ANOETAKO EZKER ABERTZALEAREN IZENEAN, JOSE M^a URKOLA ROTETA JAUNAK AURKEZTURIKO MOZIOA ONESTEKO PROPOSAMENA.

Alkate jaunak Mikel Zubillaga zinegotziari ematen dio hitza eta honek Anoetako ezker abertzaleak aurkezturiko ondorengo mozioa irakurri egiten du:

El Sr. Alcalde cede la palabra al concejal Mikel Zubillaga quien procede a dar lectura la moción presentada por “Anoetako ezker abertzaleak” que dice como sigue:

“Behin baino gehiagotan eskatu zaie Udal honetatik Estatu espainiarrari eta frantziarrari beraien espetxe politika aldatzeko. Presoen eta beraien senitartekoen aurkako mendekua beste oinarririk ez duen politika horrek, sufrikarioa beste ezer ez du ekartzen Euskal Herrira. Horregatik, euskal gizarteak berak ere hainbat aldiz, beste hainbat modutara eskatua du bortxazko eskubideen ukazio iraunkor horrekin lehen bait lehen bukatzeko.- Urteetan zehar gizaki eta preso gisa dagozkien oinarrizko eskubide denak zanpatu ondoren eta zigor osoa beteaz kanpora irteteko garaia iritsi zaienean, zigor berriak egotzi nahi zaizkie, Nazioarteko Zuzenbidearen oinarrizko arau denak gainetik pasatu eta praktikan hil arteko zigorra martxan jarriaz. Kartzela politika hau Euskal Herrian ireki nahi den prozesu politikoaren kontrako norabidean doa.- Presoak bahitu politiko gisa erabili nahi dituen kartzela politika honi emandako erantzun gisa ulertu behar da Iñaki de Juanaren gose greba. Abuztuaren 7an hasi eta gaur arte luzatzen den ekimen honek, herri eragile eta herritarren babesarekin batera Estatu frantziar zein espainiarrek kartzela politika aldatzeko balio behar du. Ekimenaren gordintasunak, nozitutako injustizia uzten du agerian eta presoen eskubideen urraketak irauten duen egun bakoitzak, atzera ezinezko ondorioak sortu ditzake.- Hau dena kontutan izanik eta instituzio publiko gisa, Udal honek herriaren aurrean duen ardura bere gain hartuaz, honako puntu hauek aurkezten ditu Osoko Udal Batzarrean eztabaidatu eta onartuak izan daitezten:- 1. Udal honek, euskal preso politikoaren eta bereziki Iñaki de Juanaren aurkako zigor politika bertan behera utzi eta bere berehalako askatasuna exijitzen dio Espainiako Gobernuari. Era berean, Udal honek, bere elkartasuna adierazi nahi dio Iñaki de Juanari.- 2. Udal honek, indarrean dagoen legea egikaritzuz, gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten eta zigorraren 2/3 beteta duten presoen askatasuna eskatzen du.- 3. Udal honek, euskal preso politikoaren eskubide guztiak errespetatuak izatea exijitzen die frantziar eta espainiar Gobernuari, eta presoak egoera apolitikoaren baitan truke-txanpon gisa erabiliak izate ez dugula onartuko adierazten du. Era berean, presoak, Euskal Herriak Estatu espainiar eta frantziarraren aurka duen gatazkaren ondorio diren heinean, konponbide prozesuan ere parte hartzeko duten eskubidea aldarrikatzen du Udal honek.- 4.

Erabaki honen berri, Rodriguez Zapatero Espainiako Presidenteari eta herritar guztiei emateko konpromisoa hartzen du Udal honek”.

Ondoren alkateak bozketa egiten du aurreko mozioa ondorengo emaitza izanik:

Aldeko botuak: ZERO
Aurkako botuak: ZERO
Abstentzioak: SEI

Ondoren alkateak adierazten du udal gobernu taldeak beste mozio alternatibo bat aurkezten duela ondorengo izanik:

A continuación el Sr. Alcalde somete a votación la moción presentada, obteniendo el siguiente resultado:

Votos a favor: CERO
Votos en contra: CERO
Abstenciones: SEIS

A continuación el Sr. Alcalde señala que el grupo de Gobierno Municipal a presentado otra moción alternativa procediendo a continuación a su lectura que dice como sigue:

“Ezker Abertzaleak, Iñaki de Juanak eta oro har preso dauden euskal herritarrek bizi duten egoeraren inguruan aurkezten duen mozioaren aurrean, EAJ-PNV/Earen udal taldeak honako mozio alternatiboa aurkezten dio udaletxe honetako osoko bilkurari: 1 Printzipio humanitarioekin, zein gizaki ororen eskubide eta askatasunekin dugun konpromisoaren bitan, askatasunik gabe dauden euskal herritar guztiguztien eskubideen errespetu zorrotza exijitzen dugu. 2. Preso dauden herritarrei dagozkien eskubideen errespetua egoera politiko zehatzetan gainetik egon behar du beti. Bere burua zuzenbidezkotzat duen Estatu batek ezin dezake inolaz ere lege iruzurraren bitartez pertsona baten eskubiderik zanpatu. 3. Honela, indarrean dagoen legea egikaritzuz, gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten eta zigorraren 2/3 beteta duten presoan askatasuna eskatzen dugu. 4. Zehazki Iñaki de Juana presoak bizi duen egoerari dagokionez, kasu honetan ere, beste guztietan bezala, legeak eskaintzen dizkion eskubideak errespetatuak izan daitezela exijitzen dugu, bere askatasuna ekiditeko egin den lege erabilpen maltzurra gaitzesten dugularik. 5. Konponbideak guztien eskubideen begirunetik etorririko direla zinen sinesten dugu, eta horregatik, deialdi berezia luzatzen diegu prozesu honetan inplikaturik dauden alde guztiei eskubide horiekiko konpromiso sendoa har dezaten”.

“Ante la moción presentada por la “izquierda abertzale” en torno a la situación los presos vascos en genera ly de Iñaki de Juana en particular, el grupo municipal de EAJ-PNV/EA presenta al pleno la siguiente moción: 1. Partiendo de nuestro compromiso con los principios humanitarios y los derechos y libertades de todas las personas, exigimos también el respeto escrupuloso de los derechos de las que se hallan privadas de libertad. 2. El respeto a los derechos de las personas que se hallan presas, debe producirse por encima de cualquier contexto político. Un Estado que se considere de derecho, no puede permitir que se utilice la Ley para vulnerar los derechos de una persona. 3. De este modo, y en cumplimiento de la legalidad, exigimos que las personas con enfermedades graves e incurables, así como las que hayan cumplido las dos terceras partes de la condena sean puestas en libertad. 4. En concreto, ante la situación que vive el preso Iñaki de Juana, como en el resto de los casos, exigimos le sean respetados los derechos reconocidos por ley, y condenamos la utilización abusiva de ésta en aras a evitar su libertad. 5. Estamos convencidos de que las soluciones vendrán del respeto de los derechos de todas las personas, por ello pedimos a las partes implicadas en este proceso que adopten un firme compromiso con respecto a esos derechos”.

Ondoren alkateak bozketa egiten du udal Gobernu Taldearen mozioa ondorengo emaitza izanik:

Aldeko botuak: SEI
Aurkako botuak: ZERO
Abstentzioak: ZERO

Emaitzak ikusirik, udal talde politikoak aurkezturiko mozioa onetsi egiten da.

Acto seguido el Sr. Alcalde somete a votación la moción presentada por el grupo de Gobierno Municipal, obteniendo el siguiente resultado:

Votos a favor: SEIS
Votos en contra: CERO
Abstenciones: CERO

A la vista de los resultados obtenidos en las votaciones precedentes queda aprobada la moción presentada por el grupo de Gobierno Municipal.

4.- **2005 EKITALDIKO AURREKONTUARI BURUZKO LIKIDAZIOA ONETSIZ ALKATETZAK EBATZITAKO DEKRETUAREN BERRI EMATEA.**

Alkate jaunak azaltzen du banatu den dokumentazioan agertzen dela 2005 ekitaldiko likidazioa nola geratu eta onartua izan den.

Udal-Batzarra jakinaren gain geratu da, Alkateak 2005eko ekitaldiari dagokion aurrekontu orokorraren likidazioa onesteko egindako ebazpenaren gain. Era berean jakinaren gain geratu da ere, 2005eko abenduaren 31reko zordun eta hartzekodunen zerrendei buruz; eta baita, data berean Kaxako izakinei dagokionean ere. Laburpena honakoa izanik:

El Pleno se da por enterado del Decreto de Alcaldía de fecha 30 de octubre de 2006 por el que se aprueba la liquidación del Presupuesto Propio del Ayuntamiento, correspondiente al ejercicio 2005; así como de las relaciones de deudores y acreedores, con referencia a 31 de diciembre de 2005 y la existencia en caja en la indicada fecha, siendo el resultado el que se indica a continuación:

“1. Altxortegiko izakin likidoak, 05-12-31n:

Fondos líquidos Tesorería a 31-12-05:241.045,81

2. Kobratu gabeko saldoak, 05-12-31n:

Saldos pendientes de cobro a 31-12-05:1.015.950,61

Aurrekontuko zordunak/Deudores presupuestarios:	1.013.950,36
Aurrekontuz kanpoko zordunak/Deudores extrapresupuestarios:	2.000,25
Aplikatu gabeko kobrantzak/Cobros pendientes de aplicación	0

3. Ordaindu gabeko saldoak 05-12-31n.

Saldos pendientes de pago a 31-12-05:	843.003,10
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak/Acreedores presupuesto gastos:	820.625,65
Sarrereren aurrekontuko hartzekodunak/ Acreedores presupuesto ingresos:	0
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak/Acreedores extrapresupuestarios:	22.377,58
Aplikatu gabeko ordainketak/ Pagos pendientes de aplicación	0
4. Altxortegi-gerakin gordina.	
Remanente de Tesorería Bruto	413.993,32
5. Saldo kobragaitzak	
Saldos de dudoso cobro:	5.537,75
6. Altxortegi-gerakin likidoa	
Remanente de Tesorería liquido	408.455,57
7. Finantzaketa lotua duten gastuetako altxortegi-gerakina.	
Remanente de Tesorería para gastos con financiación afectada:	0
8. Gastu orokorretarako altxortegi-gerakina.	
Remanente de Tesorería para gastos generales:	408.455,57
9. Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza.	
Resultado operaciones presupuestarias del Presupuesto vigente:	332.931,00
10. Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza.	
Resultado operaciones de presupuestos liquidados en ejerc. anter:	- 14.024,34
11. Doiketak, altxortegi-gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:	
Ajuste obligaciones financiadas con Remanente de Tesorería:	5.433,00
12. Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik.	
Ajuste desviaciones en gastos con financiación afectada:	0
13. Aurrekontu-emaitza:	
Resultado presupuestario :	324.339,66

Gero, bertaratutako batek hitza eskatzen du ondorengo adierazteko:

A continuación uno de los asistentes a la sesión solicita la palabra para intervenir en la misma:

2.puntuari dagokionez:

Bertaratutako batek dio:

“Galdera bat egin nahi nuke 259 dekretuari buruzkoa; bertan izendatzen dira abokatu batzuk Anoetako udalak dituen arazo batzuei... ez dakit nola esan, jakin nahi nuke hauek nondik datozen, nolakoak diren”.

Alkateak erantzuten dio:

“Bai, hau da, udal langilea izan zen batek, Anoetako Udalan berak bizi izan zuen egoera zela eta, udalari demanda bat jarri zion eta demanda horri erantzuteko, udalaren defensa egiteko, izendatu dira abogatuak”.

Bertaratutako batek dio:

“283 dekretuan, Elizelai-Orbinox enpresari zigor jardunbidea irekitzeari buruzkoa. Aurreko batzar batean izan ziren hango buruak beren abokatuarekin gai honi buruz hitz egiten. Dekretu honetan ikusi dut santzio antzeko bat moldatzen hasten dela eta ez banago konfundituta uste dut gaia juzgadutan dagoela. Aklaratzera nahi nuke nondik nora doan”.

Alkateak erantzuten dio:

“Orbinoxek Anoetako Udalari bi errekurso jarri dizkio, baina hori hobeto esplitatuko du Jose Ignaziok”.

Jose Ignacio Oterminek zera dio:

“Alkateak esan duen bezala, Elizelai eta Orbinoxek, azken finean empresa berdina da, jarri ziguten bi errekurso: urbanizazio proiektuari eta beste bat. Naiz eta errekursoak martzan egon saiatu gara beti negoziatzen ea lortzen zen konponbide bat arau subsidiarioak esaten dutena aurrera eramateko. Azken finean ez da lortu, bidea ez dago itxita momentu honetan. Gure asmoa da negoziatzea baina momentua iritxi da erabaki bat hartzeko eta hau expediente disziplinario bat irekitzea izan da, legearen kontra egin dutelako. Espedienteek juzgaduan jarraitzen dute baina honez aparte expediente disziplinario hau ireki zaie”.

Bertaratutako batek dio:

“Zer zentzu du alde batetik gai hauek tribunaletan ibiltzea eta beste alde batetik udalk bere aldetik ibiltzea?”.

Jose Ignacio Oterminek zera dio:

“Bi dekretu kontra jarri dute errekursoa. Dekretuak hor daude eta hauek ez betetzeko jarri dituzte errekursoak. Zer gertatzen da kasu honetan, beraiek egin dute, naiz eta guretzak ilegalak izan, obrak jarraitu eta “declaración de obra nueva” egin. Hori egin eta gero posible da saltzen hastea. Rekurso bat daukagu udala eta Orbinoxen artean juzgaduan baina hirugarren bat sartzen bada, eta erosten badu lokalen bat ez daki ezer errekursoa dagoela ala ez. Orduan, zer egin dugu honekin? Espedientea ireki, multa bat jarri beharko zaie etab, eta beste aldetik erregistratu da “Registro de la Propiedad”en. Modu honetan edozein erosle enteratuko da zerbait dagoela, ilegalak dela udaletxetikan behintzat obra hori. Nahiz eta saltzeko oztoporik ez egon, erosleak jakingo du zerbait dagoela, gero bere momentuan,

bukatzen direnean epaiketak etab. jakingo du eta onartu beharko du erabakitzen dena. Momentu honetan diskusioa epaitegian dago alde batetik udala eta beste alde batetik Orbinoxen artean baina ez hirugarren bat. Horregatik modu honetan, gutxienez udaletxeko eskubideak erregistratuta geratzen dira “Registro de la Propiedad-en”.

Bertaratutako batek dio:

“Alde batetik ongi iruditzen zait. Askotan hitz egin dugu gauza hauek egitearen alde. Nik uste dut gauza hauek egiten hastean ez dela zentratu behar kasu zehatz batean baizik eta bestetan hitz egin dugun bezala, kasu gehiago ere baziren eta denak aipatu beharko genituzke”.

Jose Ignacio Oterminen zera dio:

“Zeri buruz ari zara?”.

Bertaratutako batek dio:

“Behin baino gehiagotan esan dugu erregistroan jartzeko aukera zegoela batek erostera joaten bada, harek badaki kasu honetan bezala, juzizio dagoela tarteko edo udalaren santziora alde batetik edo obrak ilegalki egin dituztela edo zerbait badagoela badaki pertsona enteratzera joaten denean erosi aurretik. Honi buruz, hirigintzako komisio batean orain dela denbora dextente hitz egin genuen eta aipatu genituen beste kasu batzuk, Orbinox ez , momentu hartan ez zegoelako egoera honetan. Oso ongi iruditzen zait alde batetik jokabide hori hartzea Orbinoxekin baina nik uste, orduan aipatu genituen gai gehiagokin ere jarri beharko litzatekela prozesu hau martxan”.

Jose Ignacio Oterminen zera dio:

“Ez ditut gogoan momentu honetan beste gai horiek. Ez dut esaten ez genuela aipatu. Arrazoia duzu, edozein gauza legearen kontra egiten bada gure asmoa hori da. Esan dizudan bezala, ahal baldin bada negoziatu eta beste konponbide bat lortu juzgadura edo horrelako expediente bat ireki aurretik, ailegatu gara momentu batera aurrera egin behar dela, hala ere, esan dizudan bezala ateak irekita daude. Harremanak nahiz eta oso estuak ez izan, oraindik ahal bada hitzegino dugu konponbide bat bilatzeko. Posibilitaterik ez badago aurrera egingo dugu bakoitzaren eskubideak defendituz”.

Eta beste aztergairik ezean, alkate jaunak amaitutzat eman du bilera, iluntzeko bederatzia laurden gutxi direnean; guzti honetaz, nik Idazkariak fede ematen dudalarik.